

## KANPAINARAKO HELDUENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

### **“Zeugan dago ALDAKETAREN GILTZARRIA”**

#### 1. Sarrera (oinarriak).

- Modu konprometitan bizitzea, ebanjelioaren arabera, munduan izateko eta egoteko modu bat da, Nazareteko Jesus erreferentetzat hartuta; hau da, bizitzaren erdigunean Jesus bere bizitza gurutzeraino ematera eraman zuen arrazoi berbera jartzea. Gizaki guztienganako eta planetarekiko maitasuna, beti eta leku guztietan.
- Konpromisoak errealitatea eraldatzera garamatza; eta, noski, errealitate hori gure bizitzetan sartu behar dugu, errealitateak mugitu behar gaitu. Frantzisko Aita Santuak esaten digu “*pobreek uki gaitzaten utzi behar dugu, eta haien bidez gure irizpide eta jarrerak eraldatu, gure pentsatzeko eta bizitzeko modua*” (2017ko Garizumako mezua).
- Jesusek harrera egin eta atea irekitzera gonbidatzen gaitu, errealitateak uki gaitzan: “*Hona hemen, atean nago eta deitzen dut; baten batek nire ahotsa entzun eta atea zabaltzen badu, sartuko naiz, eta harekin afalduko du, eta hark nirekin*” (Ap 3, 20).

#### 2. Abestia.

Saioa motibatzeko, honako abestia entzutea proposatzen dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=JsZ8JOkPdEo>

*Sólo le pido a Dios  
Que el dolor no me sea indiferente  
Que la reseca muerte no me encuentre  
Vacía y sola sin haber hecho lo suficiente*

*Sólo le pido a Dios  
Que lo injusto no me sea indiferente  
Que no me abofeteen la otra mejilla  
Después que una garra me arañó esta suerte*

*Sólo le pido a Dios  
Que la guerra no me sea indiferente  
Es un monstruo grande y pisa fuerte  
Toda la pobre inocencia de la gente  
Es un monstruo grande y pisa fuerte  
Toda la pobre inocencia de la gente*

*Sólo le pido a Dios  
Que el engaño no me sea indiferente  
Si un traidor puede más que unos cuantos  
Que esos cuantos no lo olviden fácilmente*



*Sólo le pido a Dios  
Que el futuro no me sea indiferente  
Desahuciado está el que tiene que marchar  
A vivir una cultura diferente*

*Sólo le pido a Dios  
Que la guerra no me sea indiferente  
Es un monstruo grande y pisa fuerte  
Toda la pobre inocencia de la gente  
Es un monstruo grande y pisa fuerte  
Toda la pobre inocencia de la gente*

### 3. Dinamika

Gure konpromisoaren inguruko hausnarketa egiteko, honako dinamika proposatzen dugu; lehenik eta behin, bakoitzak pentsa dezala zein aldaketa edo keinu egin dituen inguruko errealitatea aldatzeko (munduan gertatzen denaren inguruan informatu, boluntario lanak egin, gure komunitate, auzo edo herriaren aldeko lanak, aurreiritziak saihestea, kontsumitzeko modua aldatzea, babesgabeenekin partekatzea, entzute aktiboa praktikatzea...). Ondoren, denon artean komentatuko dugu.

Bigarren zatian, bakoitzak bere aldetik, zein aldaketa eta keinu egin behar ditugun pentsatuko dugu, beldur, nagikeria edo bestelako zailtasunengatik oraindik ere praktikan jarri ez ditugunak. Taldean komentatu.

ERALDATZEN DUTEN ALDAKETA ETA KEINUAK	ZAILAK EGITEN ZAIZKIGUN ALDAKETA ETA KEINUAK	BELDURRAK

## 4. Otoitza.

Abestiak eta dinamikak utzitako sentsazioak otoitzera eramango ditugu. Erromatarrak 12, 1-2.

“Ez egokitu mundu honen iritzietara, eraberri zaitezte baizik, zuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina”.

Pertsonak mundu edo Eliza bera eraldatzeko beharra sentitzen duten jendartean, Jainkoaren hitzak **geure burua eraldatzera** gonbidatzen gaitu. “Ez egokitu mundu honen iritzietara”. Hitz horien ostean, zera esatea esperoko genuke: “Eraldatu ezazue!”; aldiz, zera esan digu: “Eraldatu zuen burua!”. Bai, eraldatu mundua, baina gutako bakoitzaren barruan dagoen mundua, kanpoan dagoenarekin hasi aurretik.

Frantzisko Aita Santuak, Evangelii Gaudium testuaren bidez esaten digu geure barne eremu bat zaindu behar dugula, konpromiso eta jarduerari kristau zentzua emateko. **Bakoitzak eta, talde moduan ere, azterketa bat** egingo dugu garenaren, esaten dugunaren eta gure ekintzen arteko koherentzia maila aztertzeko, gainerako pertsonen eta munduaren errealitateari dagokionez. Ondo bereizi eta aztertuta, bizitza jokoan jartzen dugu, Jainkoaren eta gizateria eta planeta osoaren aurrean.

Frantzisko Aita Santuak dei egiten digu *Laudato Sí* entziklikaren bidez, **anaitasunezko konpromiso** bat hartzeko; planeta zaintzeko eta bizi-estilo kontsumista, suntsitzaile, esplotatzaile, indibidualista eta baztertzaila aldatzeko, eraldaketa ekologiko eta gizatiarraren bidez.

### OTOITZA

Jauna, jarri nigan begirada lasaiak,  
Konfiantza ematen dutenak.  
Jarri nire ahoan hitz egokiak,  
Ekintza zuzenak bideratzeko, maitasunaz hitz egiteko  
Eta zure mezua zabaltzeko, zure erreinua aldarrikatzeko.



Prestatu nire belarriak entzuteko,  
Eta eman niri pazientzia eta jarrera egokia,  
Behar nauten guztiei entzuteko.



Jarri nire ahoan benetako irribarreak  
Eta hitz zuhurrak,  
Bakea, alaitasuna eta baikortasuna.



Jarri nire eskuetan laztanik gozoenak  
Eta hala nahi dutenentzako euskarririk sendoena.  
Jar itzazu nire bihotzean guztietan diren sentimendurik nobleenak  
eta mugarik gabe maitatzeko gaitasuna.



Jarri nire oinetan ibiltzeko indarra,  
Munduan zure erreinua ezartzen laguntzen diguten  
Utopia guztiak egia bihurtu arte.



## 5. Ekintza proposamena.

Pertsona guztiei eskatuko zaie ekitaldi honetarako eraldaketa (norberarena eta inguruarena) konpromiso bat idazteko (errealitatea hobeto ezagutzea; egiteko zehatz bat burutzea; jarrerak, kontsumitzeko moduak, harremanak, laguntza emateko moduan aldatzea...)

## 6. Itxiera

Pertsona bakoitzari galdetu ahal diogu zein sentazioarekin bukatu duen. Bakoitzak sentimendu bat aipatu dezala, eta zergatik sentitzen den horrela. Abestia berriro entzun edo oitza berriro irakur dezakegu guztion artean.